AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Oposaketak eta lehiaketak

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

4355

EBAZPENA, 2012ko urriaren 1ekoa, Langileriaren Kudeaketako zuzendariarena, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 2012ko ekainaren 26ko Aginduaz deitutako hautaketa-prozesuan onartutakoen eta bazter utzitakoen behin betiko zerrendak onartzen dituena. Agindu horren bitartez. Euskal Autonomia Erkidegoko ikuskatzaileen kidegoan sartzeko oposizio-lehiaketarako deialdia egiten da.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 2012ko ekainaren 26ko Aginduren bitartez (2012-05-10eko EHAAn argitaratua), Euskal Autonomia Erkidegoko ikuskatzaileen kidegoan sartzeko oposizio-lehiaketarako deialdia egin zen.

Langileriaren Kudeaketako zuzendariaren 2012ko irailaren 17ko Ebazpenaren bitartez honako behin-behineko zerrenda onartu zen: Euskal Autonomia Erkidegoko ikuskatzaileen kidegoan sartzeko oposizio-lehiaketarako onartutako eta bazter utzitako hautagaien behin-behineko zerrenda.

Aipatu deialdiaren 4. oinarriko 3. paragrafoan ezartzen denez, aurkeztutako erreklamazioak onartu edo baztertutakoan, Langileriaren Kudeaketako zuzendariak ebazpena emango zu, zienarekin onartu egingo baitu onartutako eta bazter utzitako hautagaien behin betiko zerrenda.

Hori guztia dela eta, hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengo artikulua.– Euskal Autonomia Erkidegoko ikuskatzaileen kidegoan sartzeko oposizio-lehiaketan parte hartzeko onartutako eta bazter utzitako hautagaien behin betiko zerrenda onartzera; betiere, bazter uzteen arrazoiak aditzera emanez.

Hezkuntzako lurralde-ordezkaritzetan eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren Interneteko helbidean argitaratuko da zerrenda hori: http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net

Bigarren artikulua.– Hautaketa-prozesurako onartutako eta bazter utzitakoen behin betiko zerrendaren aurka, hautagaiek gora jotzeko errekurtsoa aurkez diezaiokete Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordeari, hilabeteko apearen barruan, ebazpen hau argitaratu eta hurrengo egunetik hara.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko urriaren 1a.

Langileriaren Kudeaketako zuzendaria,
JUAN MANUEL ARAMENDI ARTEAGA.